

## ZENBAT GARA KULTUR ELKARTEA

**Todor Etxaburu**

*Zenbat Gara Kultur Elkarteko kidea*

Bilboko euskal komunitatea konpaktatu beharraz hitz egiterakoan, euskaldungoa, etsipen eta ezkortasun geldikorretik baikortasun itsu eta hutsaletik bezain urrun, baikortasun kritikora erakartzearen premia azpimarratu beharra dago. Horretarako, abiapuntutzat elkarren osagarri diren bi zutabetan oinarritzen gara: batetik, orain arteko Euskaraz bizitzeko urratu dugun bidea, metatu dugun esperientzia: bestetik, Euskararen historia eta biziraupenaren karira hemen sortu den Txepetxen mintzo berria.

Bilbon, 37.000 mila euskaldunek sekulako zailtasunak ditugu euskaraz bizi ahal izateko, eta gainera 80.000 «ia-euskaldunek» (hauen artean orain ikasten ari direnak) ikasitakoa praktikan erabiltzeko eta hobetzeko aukera gutxi dute. Bilbon, Euskal Herri osoan antzera, edo nabarmenago, hizkuntz komunitatea desegituratu eta desitxuraturik dago.

Horren aurrean Bilboko euskaldungoa trinkotzen eta egituratzen hasi beharra dago. Gu behintzat, horrek eskatzen duen jauzi kualitatibo integrazalea emateko deliberaturik gaude.

ZENBAT GARA euskaraz bizitzeko elkarte eratzeko eta ekintzak antola-

tzea, eguneroko praktikan euskaltegiko ikasleei eman dizkiegun zerbitzu berezien bilakaera naturala baino ez da izan.

Gehigarri kualitatiboa, esanik dago, gure hizkuntzaren egoeraren azterketa, diagnosis eta osabidea bere baitan dituen teoria-mintzoa geureganatzea izan da. Gure herriaren izaeraren baitan eta bizitzaren hizkuntzan sustraiturik dagoenez, naturalki eta aise egin dugu bat. Ondorioz, geuk egiten eta intuizten genituen ekintzetan eta ametsetan, izugarritzko konfidantza hartzeaz gain, beste dimentsio eta posibilitate batzuk zabaldu ditugu.

Orain ZENBATGARA euskaraz bizitzeko elkartearen proiektu sendo erakitzeke eta garatzen joateko praxia eta teoria uztartzen ahalegindu behar dugu.

Barrura begira edo autoeraketa kontuan hartuz:

Esperientziari esker maila horretara iritsi direnak trinkotzen joan, geurean ere hizkuntz komunitatea nuklearizatzen joan dadin. Geure burua formatu eta geure arteko harremanak, ekimenak, eta abar egokitzen eta garatzen joan; beti ere, sormena, ezagutza eta erabilpena (bestela esanik: ideiak, pertsonak eta errekurtoak) berdintasunaren mintzoaren arabera antolatuz.

Bilboko errealitatean eraginez euskaldungoaren integratze, egituratze eta trinkotze prozesuan osagarri diren ekimenak gauzatu joan.

Hasteko eta bat, euskaldun guztien topagune eta erdaldunek euskararekin topo egiteko gune nahi genukeen BILBO KAFE ANTZOKIA sortuz eta eskainiz. Trinkotzen lagungarri ezezik erabilpena ahalbidetzeko eta sustatzeko ere nahi genukeena. Ahaztu barik ezagutza ere sakondu eta hobetu behar dugula, jauzi kualitatiboa emateko unean gaudelako, eta horretarako sormenaren emankortasuna ahalbidetu eta segurtatu nahi/behar dugula. Eta hiru zutabe horiek etengabe elkarren artean komunikatzen eta elikatzen joan behar dugula.

Erronka handia da baina euskararen egoeran ere premia halakoxea da. Gu horretan gaude.